

Estereotipoen eragina sormenean eta identifikazio kulturala

Título: Estereotipoen eragina sormenean eta identifikazio kulturala. **Target:** Educación Infantil. **Asignatura:** Lenguajes:comunicación y representación. **Autor:** Nerea Zabaleta Arangoa, Maestra. Especialidad en Educación Infantil y Primaria., Profesora de Educación Infantil.

“Disneyzazioa”-ren terminoa ez zaigu ezezaguna egiten. Arazo hau globalizazioaren eta kapitalismoaren beste emaitzetako bat dela esango genuke eta beraren eragina garbi ikusi daiteke bai sormenean baita umeen gustuetan, etab.

Estereotipoek arazoak dakartza gaur egun hezkuntza plastikoaren didaktikan beraz, batez ere adierazpen askean oinarritutako didaktikan. Grafiko eta kromatismo zehatz batzuk gehiegi erabiltzen dira. Grafiko hauek ez dira guk sortuak, kanpotik datoz eta ondorioz, ez dira naturalak. Singulartasunetik orokortasunera salto egin dugula dio Imanolek.

Disney enpresak adibidez, oso argi dauka haurtzaroa etorkizuneko kontsumitzaile bihurtu nahi duela. Horretarako, marrazki politik, grafiko horietan oinarritutako maindireak, koadernoak, toailak, koloniak, McDonald’s-eko menuarekin batera oparitzen dituzten marrazki bizidunetako jostailuak, liburuak...sortzen ditu pelikula eta marrazki bizidunetz gain. Balio amerikarrak gailendu nahi dituzte beste kulturak gutxi etsituz. Beraz, balio horiek xurgatzen dituzte umeek txiki txikitatik.

Oso modu “sutilean” saltzen dituzte produktuak gure inkontzientearen erraietaraino barneratu arte. Helburu merkantilista oso garbi dute eta estrategiak ere oso modu egokian aztertzen dituzte eta euren lana ezin hobeto saltzen dute, pentsa! gure sormen gaitasuna baldintzatzeko adina!.

Gizartean integratzen goazen heinean eta eskolan hasten garenean, eskema plastiko estereotipatu horiek gureganatzen goaz eta ondorioz, gure gaitasun sortzailea eta irudimen naturala kutsatua geratzen da. Honi aurre egiteko hezkuntzak arazoak ditu. Honen aurrean, soluzio gisa, eskoletan haurren irudimena biztuarazten saiatzea litzateke, hau da, ikasitako eskema horiez libraraztea eta irudimena estimulatzea.

Hala ere, gure ustez, irakasleak kontziente izan behar dute gertatzen ari denaz eta errealitatea nolakoa den ikusita, kritikotasunez jokatu behar dute. Bestalde, irakasle asko efektu honen pean daudela pentsatzen dut eta zaila da “zirkulu bizioso” hori haustea.





Hala ere, Disney bezala estereotipoez gain, helduok estereotipoak markatzen dizkiegula maiz pentsatzen dugu. Nork ez du entzun “zergatik margotu duzu eguzkia morez?” bezalakoak. Modu honetan, umearen sormena baldintzatzen ari gara. Ez du zertan eguzkia beti horia izan beharrik. Hori txiki txikitatik barneratzen dugu. Honekin haurren marrazki gehienak eskema bera jarraitzera mugatzen dugu, adibidez, etxe bat teilatu hirukiarekin, ondoan zuhaitz bat, mendia eta eguzkiarekin...



Umeek eskemak oso barneratuta dituztenean, irudia memorizatuta dute eta ondorioz, askok erregela erabiltzen dute (mendiak). Irudi hauek hotzak suertatzen dira, naturaltasunik gabe. Irudi hauetan eskematismoa ageri da eta irudimenaren ausentzia nabarmentzen da. Soluzioak ematen saiatzen dira eskoletan deformazioaren bidez, hots, mugimendua adierazteko modu anitzak azalduz, etab. askotan beste kulturetako errepresentazioen antzekoak erabiltzen dira (“outsider” kontzeptua).

Irakasleek ere umeentzako diren ariketetan geroz eta gehiago ikusi daitezke estereotipoak, eta baita Disney-ren edo telebistako marrazki bizidunen ikonografiaren tankerakoak ere. Guzti honek, alde batetik umeen baliabide plastikoak pobretzen dituzte eta kulturaren homogeneousazioa bestetik. Geroz eta gehiago ikusten da testu liburuetan Disney erako marrazkiak, letrak...guzti honek ez du zerikusirik haurren hurbileko kulturarekin eta lehen esan bezala, kontuz ibili behar gara transmititzen dituzten balioekin.

Gizarteak eta eskolak umeen bat-batekotasunaren eta naturaltasunaren galeran eragiten dute. Alde batetik, curriculumaren pisu handiegiagatik, hau da, curriculum bera oso zehatza da eta edukiak memorizatzea dago indarrean oraindik alde intelektuala garatuz eta garapen pertsonala alde batera utziz. Bestalde, irakasle askok ikasleei beraiek dituzten eskemak inposatzen dizkiete, hots, sormen lana gidatu beharrean, nola margotu, zein kolore erabili...esaten diete.

Gure ustez, umeen sormena ez da nola egin behar duten esatea eta jarduera zehatzak ematea, baizik eta, askatasuna ematea sormena estimulatuz eta euren lana behar dutenean gidatzea edota orientatzea sormena aberastuz.

Urteetan zehar, hezkuntzan hainbat soluzio ematen saiatu dira arazoari, hau da, adierazpenaren pobretzea ekiditeko helduek sortzen duten interferentzia ekiditen saiatu dira. Hasieran, oso pil-pilean egon zen

adierazpen askearen kontzeptua. Planteamendu hau, helduek askatasun osoa ematean datza, ezta orientatzeko ere. Askatasuna eta naturaltasuna ikonoen kolonizazioaren soluzio eta oinarri izan dira. Hau lortzeko metodologiak jarraitu dira eskoletan baina estrategia hauek hutsuneak dituela ikusi da; adierazpen libreak ez du estereotipoen parte hartzea galarazten haurren sormenetan.

Gure ustez, oso modan egon da adierazpen librearen planteamendua (autoexpresionismoaren korrontea) baina arte hezkuntza ez da hori bakarrik nik ulertzen dudan moduan. Haurrak duen sormen gaitasuna garatzen eta azalarazten lagundu behar zaio, hau da, horretarako teknikak, orientabideak eta irakaskuntza orokorrean eskaini behar dizkio. Korronte akademizista batetik, beste muturrera pasatu ginen, hau da, autoexpresionismora. Nire iritziz, gauzak ez dira ez beltzak ez zuriak inoiz ez inon. Gainera, gaur egun oraindik, nire ustez, haurren errepresentazio eta adierazpenaren funtzioa gehiegi azpimarratzen da. Umeek zirriborroak egiten dituztenean, ez zaio lanari garrantzia handirik ematen, ez baitu figura bat irudikatzen gaitasunik. Zergatik kentzen diogu aurre-eskematikoari balioa? Nork esaten digu hori ez dela sormen lan on bat?. Gure ustez, aurreiritzi honekin umeari segurtasun-eza transmititzen ari gara. Eran berean, nork ez dio entzun ume bati “nik ez dakit margotzen” espresioa? Margotzea zer da helduek margotzen duten eran margotzen jakitea?.

Aurreko paragrafoarekin kontradikzioan dagoen ustea ere badago, hau da, askok pentsatzen dute haurtzaroa dela adierazpen naturalaren etaparik egokiena. Beraz, haur batek zirriborroak egiten dituztenean zergatik pentsatzen da ez dutela kualifikazio maila egokirik lortu oraindik?. Batzuen iritziz, haurtzaroan oraindik ez dute inguruaren eraginik barneratu, eta ondorioz, kulturaren kutsua oraindik ez dute manifestatzen. Ikusten den bezala, kontraesan bezalako etapa da haurtzaroarena.

Haurtzaroa purua baldin bada, berau mantendu behar diotela diote aditu batzuk, hau da, berezko naturaltasun eta freskura horri eutsi behar omen zaio. Baina, hori posible al da?. Gure ustez, haurra inguruan besteekin harremanaz integratzen da, besteak imitatuz jasotzen dute ezagutza. Naturaltasun hori mantentzeko lana pedagogiari dagokio eta nik pentsatzen dut oso lan zaila eta ia ezinezkoa dela.

Batzuen ustez, adierazpen askea helburu bakar bezala hartu da eta ez du onurarik ekarri. Arte hezkuntza diziplina gisa ahuldu egin duela pentsatzen dute eta ondorioz, beronen desprestigioa. Umeengan orientazio faltak ekarri du eskema prefabrikatu horiek erabiltzeko beharra. Beraz, beharrezkoa da oinarriko teknika artistikoak irakastea. Erabat ados gaude ideia honekin, ikasleek informazioa eta orientazioa behar dute sormena aberasteko, baina ez mugatzeko. Metodologia hau DBAE korrontearekin lotuko genuke. Artea diziplina gisa sortzeko beharra ikusi zuten eta horretarako, jakintza gisa irakatsi behar zutela pentsatu zuten. Beraz, sormena eta marrazketa libre ongi dago baina honez gain, akademikoki eduki batzuk, teknika batzuk, orientazio batzuk erakustea ezinbestekoa da. Gaur egun indarrean dagoen korrontea errekonstrukzionismoa da eta honek ikus kulturarekin du zerikusia, hau da, arte objektuez aparte, kultura bisualak hartzen du garrantzia. Artea kultura bisualaren barruan kokatzen da.

Sormenak bizitzen duen arazora bueltatuz, esan beharra dago eskemak eta estereotipoak ez direla gauza bera. Eskema zerbait malgua da eta aldaketak jasan ditzakeena da. Estereotipoak berriz, ez dira aldatzen eta berdinak errepikatzen dira beti. Eskema irtenbide plastiko bezala ulertu behar da, hau da, objektu bat edo errealtateko zerbait irudikatzen erabiltzen ditugu. Edozein arte lan eskematikoa dela esan dezakegu bera, hau da, ez dago eskemarik gabeko errepresentaziorik. Dena den, nire ustez, estereotipoak ere eskema prefabrikatuak dira oinarrian. Diferentzia da batzuk aldatu daitezkeela eta beste batzuk ezin dira aldatu.

Umeen erreproduzio plastikoak eskematikoak direla kontutan hartzen badugu, adierazpen askearen naturaltasuna distorsionatzen duena ez da eskema, estereotipoa baizik. Estereotipoa da haurraren sormen gaitasuna eta originaltasuna oztokatzen duena. Arte hezkuntzari kezkatzen diona ez da eskemak erabiltzea, baizik eta eskema horiei ekarpen pertsonalak ez ematea (estereotipoen ondorioz).

Estereotipo bat ezin da aldatu, beti berdina dira eta ondorioz, umeak estereotipoa erabiltzen duenean bere lanean, honek ez dio ekarpen pertsonalik ematen uzten lanean. Naturaltasunaren galera, originaltasun eta batekotasunaren eza da estereotipoek eragiten dutena eta hezkuntza artistikoak duen kezka.

Askotan pentsatzen dugu “nik ez dut balio honetarako”. Batzuen ustez, denak gaude gaituak jaiotzez sortzaile izateko baina guztion jaiotzetiko gaitasun hau kulturak desnaturalizatzen omen du (helduaroaren originaltasuna galdu egiten omen da) eta ondorioz, batzuk bakarrik mantentzen omen dute sormen natural hau; artistek bakarrik. Beraz, naturaren (instintua eta esentzia) eta kulturaren (desnaturalizazioa) arteko gatazka dagoela esan dezakegu. Nire ustez, haurren sormen hau ez da innatoa, baizik eta beren inguruko guztia barneratu egiten dute eta haurren espresio plastikoa beraz, identifikazio eta integrazio kulturalaren prozesua dela esango nuke. Nik uste, helduaroan originaltasun hori ez da gutxitzen askok pentsatzen duten bezala, baizik eta aberasgarri izan behar du umearentzat.

Arte hezkuntzan, haurren alde ezkutua ateratzen utzi behar omen zaie libreki. Gure ustez, ez da horrela, hau da, batzuk erraztasun batzuekin jaiotzen dira (arterako, matematiketarako...) Egia da, nahiz eta guk berezko erraztasun hori ez izan arterako, hobetu dezakegula, teknikak, baliabideak...eskuratuz. Irakasleen lana, baliabide horiek emanez gaitasun horiek hobetzea litzateke eta aldi berean, umeek barnean dituzten sentimenduak, inpultsoak etab. ateraraztea.

Dena den, oso garrantzitsua da sormenean eragiten duten estereotipoek etab. kontziente izatea eta bestalde, eskemak ekidinezinak direla onartzetik abiatuta planteatu behar ditugu soluzio guztiak. Baina, modu batean ala bestean, errealitate honen berri ematen al diegu umei? Kontziente al dira?. Oso baliagarria litzateke faktore hauetatik hitz egitea eta ulertaraztea. Honela, iritzirik kritikoa landuko lukete eta beraiek ere bere barneko psikea eta honen naturaltasuna errazago manifestatuko lukete euren errepresentazio plastikoetan.

Errepresentazio guztiak berez kulturak eragindako eskematizazioak badira, artista batek egindako obra bat jenialtasun gisa jotzen da kulturak onartzen duenean soilik, aldiz, kulturak onartzen ez badu, jenialtasun hori alferrikakoa da. Ondorioz, horrek berak bultzatzen du artista kultura horretako kodigoak integratzeaz, kultura horretan errekonozitua izan nahi duelako. Beraz, kulturak baldintzatzen du bere errepresentazio plastikoa. Nire ustez, hau horrela izan daiteke bizitza honetako aspektu guztietan gauza bera gertatzen zaigulako, hau da, talde batean integratuta sentitzeko taldeko arauak, balioak etab. jarraitzen ditugu. Faktore honi desiragarritasun soziala deitzen diogu. Umeetan ere egoera hau ikusi dezakegu, hau da, umeek integratzeko beharra dute eta helduxeago direnean, marrazterakoan konplexuak sortzen zaizkie. Desanimatu egiten dira marrazterakoan, ez zaizkie gustatzen egiten dituzten marrazkiak eta helduek bezala marraztu nahi dute. Hemen ere, kulturak esaten du marrazki egoki bat nolakoa izan behar duen eta horrek haurren sormenean mugak jartzen ditu. Honen ildotik, irakasleak euren baloreak inposatzen dizkiote haurrei marrazterakoan inkontzienteki baina, aldi berean, marrazki librea eta sormena bultzatu nahi dute. Ez al da hau paradoxa bat?.

Honi lotuta, zergatik izan behar du sormen lan bat “lan artistiko” bezala onartua eta beste sormen lan bat ez da honela izendatzen? Zeinek zehazten du lan bat artistikoa den ala ez?. Ez al guke saiakerarik egin beharko artearen balore estetiko tradizionalak erlatibizatzen?. Ulertu behar dugu artea garai eta kultura zehatz batetik kontzebitzen dela, beraz, artea erakuntza soziala dela esan nezake eta aldi berean, aldakorra.

Hezkuntzak bi helburu ditu; pertsonaren sormena garatzea eta umearen integrazio kulturala. Goian azaldutakoaren arabera, posible al da bi gauza horiek bateratzea naturaltasunezko edo purua den sormen hori manifesta dezaten nahi badugu? Kulturak ez al dio bada naturaltasun horri atea ixten?. Bi helburu hauen oreka lortzea zaila dela uste dugu baina hori da eskematismoa ekiditeko bidea. Gure iritziz, barneko naturaltasun hori ateratzen lagundu behar diegu baina eskematismoen arazoaren berri duten heinean eta baliabideak eta erremintak eman behar dizkiegu naturaltasun hori lortzeko. Bestalde, agian ez dugu planteatu behar

inguruaren eragina jasotzen dugun neurrian zerbait negatiboa dela sormenarentzat, baizik eta, agian aberasgarri eta positiboan bilakatu dezakegu esandako baliabideak eskaintzen badizkiegu.

Baliabideak ematea aipatzen dugunean, beste hainbat gauzen artean, ondokoak sartuko lirateke; erabateko espresio askea ez bultzatzea klasean, hau da, erremintak erakustean eskemak pertsonalizatu ditzaten, beraz, interbenitu/orientatu/gidatu egin behar dugu euren sormen lanetan. Garrantzitsua da ere haurra bere inguruko kulturaren kokatzea, beraz, adibidez Disney-en estereotipoak ekiditen saiatuko naiz, haurrarentzako ez baita hurbileko erreferentea. Esperientzia bidezko ikaskuntzari balio handia eman behar diogu, hau da, haurrak esperimendatzeko gozatu egin behar du eta honela haurra margotzera etab. motibatuko egingo dugu.

